

Lagun hori:

Vital Fundaziotik harremanetan jarri nahi dugu zuen futbol klubarekin, "Arabako emakumezko entrenatzaileen prestakuntzarako bekak" izeneko deialdi berriaren berri emateko. Emakumezkoen Kirola Araban 2018 – 2022 'BAI, NAHI DUT' programaren barruan dago deialdi hori. Ekimen honek bere hirugarren edizioa beteko du aurten, eta futbol taldeetako teknikarien artean emakumeen presentzia areagotzea du helburu.

Arabako Futbol Federazioak, entrenatzaileen Eskola Nazionalaren bidez, antolatzen dituen futbol entrenatzaile-ikastaroak egingo dituzten neskei zuzenduta daude bekak. Ikastaro horiek Estatuko legediarekin, Espainiako Futbol Federazioaren araudiarekin eta UEFA Coaching Convention-eko zuzentarauekin bat datoz, eta beharrezko ezagutzak eta trebetasunak emango dizkiete autonomia-erkidegoetako eta Espainiako futbol-federazioek antolatutako lehiaketetan lan egiteko.

Vital Fundazioak aukera ematen du federazio-ikastaroaren % 75era arteko diru-laguntza jasotzeko, beka horiek eskatuz. Interesatuak Araban jaiotakoak edo Arabako Lurralde Historikoan erroldatuta egon beharko dute duela hiru urtetik. Azken baldintza hori betetzen ez badute, gaur egun federazioko begirale, kirol-entrenatzaile edo kirolari lizentzia izan beharko dute Arabako klub, elkarte edo kirol-eskola batean, eta, gainera, gutxienez hiru denboralditan funtzio bera beteta izan beharko dute klubetan, elkarteetan edo eskoletan.

Eskaerak egiteko epea bihar, irailak 10, hasiko da eta urriaren 10ean amaituko da, www.bainahidut.eus webgunearen bitartez.

Ikastaroa amaitu ondoren edo ikastaroa egin bitartean, bekaren eskatzaileak praktika batzuk bete beharko ditu futbol-talde batean, aukeratzen duen taldeko entrenatzailearekin batera. Bekak eskuratu ahal izateko derrigorrezkoa izango da ikastaroa gainditzea.

Vital Fundazioak eta Arabako Futbol Federazioak bene-benetan animatu nahi ditugu emakumezkoen taldeak dituzten klubak, jokalaria ikastaro horietan izena ematera eta fundazioaren bekak eskatzera anima ditzaten.

Denon artean lortuko dugu Emakumezkoen Kirolak Araban oztopo guztiak gainditzea!

Informazio gehiago eta oinarriak: info@siquiero.eus eta 647 56 65 79 telefonoan.